



# 2015EKO AURREKONTUAK EGITEKO GIDALERRO EKONOMIKOAK

## 1. XEDEA ETA ESPARRUA

Gobernuak ekitaldian zehar egingo dituen jardueren isla dira aurrekontuak, gobernu-lanaren helburu nagusiei erantzuten diete eta epe ertaineko planen bidez gauzatzen dira. Plan horiek, berriz, urtero zehazten dira aurrekontu-gidalerroetan eta aurrekontuetan bertan. Ikuspuntu horretatik, aurrekontuak egiteko gidalerro ekonomikoak funtsezko atala dira estrategia-planak-aurrekontua katean.

Hain zuzen ere, EAeko 2015eko Aurrekontu Orokorrak egiteko Gidalerro Ekonomikoek Aurrekontu Erregimenari buruzko Legeari erantzuten diote. Lege horren arabera, Gidalerroen helburu nagusia da gastua kudeatzen duten Sailek eta zentroek ongi ulertzea zein testuingurutan formulatzen diren aurrekontuak, eta haien eduki ekonomikoari buruzko orientabide argiak ematea.

Urteroko estrategien eta aurrekontuen arteko lotura oso korapilatsua da, eta hala aitortzen da. Zailtasun hori are nabarmenagoa da egungo zalantza-giroan.

Euskadiko Barne Produktu Gordinaren azken aldiko eboluzioa esperantzagarria den arren, oraindik kezka eta desadostasunak daude zenbait Estatuk izango duten eboluzioari buruz (adibidez, Frantzia, Holanda, Brasil, Argentina, Txina edo Estatu Batuak), Europa ekialdean gatazkak daude, eta Europako politikaren norabidea eta erritmoak ez daude batere argi.

Horregatik, martxan dagoen prozesu baten barruan ikusi behar dira Gidalerroak. Gidalerro horiek dokumentu honetan agertzeak ez du esan nahi inguruko aldaketak modu sistematikoan berrikusi behar ez direnik, edo aldaketa horiei erantzuteko estrategiak eta jarduerak birbideratu behar ez direnik.

## **2. GOBERNU-LANAREN TESTUINGURUA**

Estrategia orok barne-egoeraren diagnostiko bati eta inguruaren azterketa bati erantzuten dio. Inguruko aldaketek baldintzatu egiten dute xedeak lortzeko modua, bai eta helburuak eta horiek lortzeko bideak eta epeak zehazteko modua ere.

Gidalerro hauen testuinguruan, bi faktorek baldintzatzen dute Gobernuaren estrategia eta 2015eko programazioa: (1) hazkunde ertaineko testuinguru makroekonomikoa, familiak eta enpresak gogor jo dituen atzeraldi sakon eta luze baten ondoren eta (2) Europako gobernantza ekonomikoaren arauak bete beharra.

### **2.1. Testuinguru makroekonomikoa: hazkunde ertaina, atzeraldi sakon eta luze baten ondoren**

#### **2.1.1. Aldagai makroekonomikoen eboluzioa eta egungo egoera**

2013an, Euskadiko ekonomiak jaitsiera handia izan zuen berriro, BPGaren -% 1,2, aurreko urtean baino lau hamarren gutxiago. Euskadiko barne-eskariak bultzada-falta hori igarri zuen, eta urteko batez bestekoa % 1,5 jaitsi zen. Kopuru hori negatiboa izan arren, 2012an baino ia puntu bat hobea izan zen. Atzerriko sektorea berriro ere mesedegarria izan zen ekonomiarentzat, baina aurreko urteetan baino dezente gutxiago, ahuleziak jota daudelako Europako herrialde gehienak.

Hala eta guztiz ere, BPGaren hiruhileroko eboluzioaren jaitsiera motelduz joan zen: lehen hiruhileko urtetik urterokoa  $-\% 1,9$  izan zen, eta azken hiruhilekoan  $-\% 0,3$ . Euskadiren egoera, inguruko ekonomien aldean, Estatu osoaren antzekoa izan zen ( $-\% 1,2$ ), baina urrun egon zen Europar Batasunaren batez bestekotik ( $\% 0,1$ ) eta euro-gunekotik ( $-\% 0,4$ ).

Europako ekonomiaren arazoek eragin mugatua izan zuten munduko ekonomian: 2013an  $\% 3,0$  hazi zen, aurreko urtean baino bi hamarren gutxiago. Berriro ere, garapen bidean dauden herrialdeek egin zioten ekarpenik handiena munduko hazkundeari, haiek ere makaldu arren. Izan ere, oro har, garapen bidean dauden herrialdeak  $\% 4,7$  hazi ziren, aurreko urtean baino hiru hamarren gutxiago. Ekonomia aurreratuen BPGa, berriz,  $\% 1,3$  hazi zen, 2012an baino hamarren bat gutxiago. Garapen bidean dauden herrialdeen makaltzea Errusian eta Mexikon gertatu zen batez ere, non hazkundea dezente txikiagoa izan zen 2012an baino. Aldiz, Txinak goiari eutsi eta  $\% 7,7$ koa errepikatu zuen, eredu-aldaketa sakon baten erdian egon arren, non barne-kontsumoa txanda hartzen ari zaien esportazioei.

Ekonomia garatuen artean, denetariko egoerak egon ziren. Alde batetik, Estatu Batuak nabarmen hazi ziren ( $\% 1,9$ ), baina aurreko urtean baino ia puntu bat gutxiago, inbertsio pribatua ahuldu zelako eta sektore publikoaren ekarpena berriro jaitsi zelako, aurrekoan baino gehiago. Beste aldetik, Japoniak gorako bideari eutsi eta  $\% 1,5$  hazi zen, bertako lehen ministroak hartutako 'Abenomics' delako neurriei esker, hau da, zerga-pizgarriak, kreditu-erraztasunak eta egitura-erreformak, inflazio-helburua  $\% 2$ an finkatuta, deflazioaren mamua behin betiko atzean utzi asmoz.

Txanponaren ifrentzua, baina, Europar Batasuna da: ozta-ozta lortu zuen urtean  $\% 0,1$  haztea, aurreko urtean behera egin ondoren. Ekonomiaren esparru horretan, txanpon bera duten herrialdeetan

eman ziren emaitzarik kaskarrenak; aldiz, Erresuma Batuak sorpresa eman zuen: % 1,9 hazi zen, azken sei urteotako gehiena. Euro-gunea, ordea, bigarren aldiz erori zen 2013an, hain zuzen ere -% 0,4. Herrialdi nagusi guztiak agertu ziren ahul, nahiz eta batzuek hazkunde positiboa izan zuten, txikia bada ere. Alemania izan zen buru, % 0,4rekin, eta Frantziak % 0,2 bakarrik lortu zuen. Emaitzak nabarmen okerragoak izan ziren herrialde periferikoetan, desorekei aurre egiteaz gain kontu publikoak kontrolatzeko neurriak aplikatu behar izan baitzituzten, eta horien eragina proziklikoa izaten da. Hala, Espainiaren (-% 1,2) eta Italiaren (-% 1,9) BPGa asko murriztu zen.

Euskadi ez zen salbuespen izan euro-gunean: 2013an berriro jaitsi zen bertako BPGa (-% 1,2). Dena dela, EAEko 2014ko ekonomiaren hiruhileroko profila balio positiboetara hurbilduz joan zen, eta halaxe gertatu da 2015eko lehen hiruhilekoan. BPGa jaistearen eraginez, enpleguak % 2,1 egin zuen behera.

2014an Euskadiko BPGa lau hamarren gutxiago jaistearen arrazoia izan zen barne-eskaria hain negatiboa ez izatea: % 1,5 murriztu zen 2013an, ia puntu bat gutxiago 2012an baino. Atzerriko saldoaren ekarpena positiboa izan zen, baina aurreko urtean baino urriagoa (+% 0,4). Horretan zerikusia du hiruhilekoak igaro ahala Euskadiko eta Europako ekonomiak izandako susperraldiak, hazkundeak egon baitziren esportazioetan (% 1,1) nahiz inportazioetan (% 0,5).

Barne-eskariaren bi osagai nagusiak gutxiago jaitsi ziren 2013an. Hala, azken kontsumoaren gastua -% 1,0 jaitsi zen, aurreko urteko -% 1,2ren aldean. Ekonomiaren sektore guztietan jaitsi zen jarduna, maila desberdinetan bada ere. Hala, gorabehera handikoa izan ohi den sektore primarioa % 6,1 jaitsi zen, aurreko hiru ekitaldietan nabarmen hazi ondoren. Eraikuntzaren balio erantsia, berriz, % 5,0 murriztu zen. Aipagarria izan zen industriaren bariazioa ere, -% 1,9, aurreko balioa ia bi puntu hobetu arren. Zerbitzuei dagokienez, oro

har, beren balio erantsia % 0,6 murriztu zen, 2012an baino bi hamarren gehiago.

Moderazio handia segitu zuen egoten prezioetan. Hain zuzen ere, BPGaren deflatoarea % 1,2 hazi zen 2013an, aurreko urtean baino puntu bat gehiago. Dena dela, kontuan izan behar da funtzionarioei aparteko paga kentzeak izan duen eragina kontsumo publikoaren deflatoeran: 2012an behera (-% 3,3) eta 2013an gora (% 1,8). KPIa, berriz, % 1,6koa izan zen batez beste, aurreko bi urteetan baino dezente apalago. Horretaz gainera, 2012ko irailean BEZa igotzeak eragindako goraldiaren ondoren, KPIaren hazkundera moteldu, urtea % 0,6an amaitu eta bere horretan eutsi dio 2014ko lehen hilabeteetan.

### **2.1.2. 2014-2015eko perspektiba makroekonomikoak**

NDFren aurreikuspenen arabera, munduko ekonomia 2013ko % 3tik 2014ko % 3,6ra eta 2015eko % 3,9ra haziko da. Bultzada hori ekonomia aurreratuengandik etorriko da batez ere, kontsolidazio fiskala desazeleratu eta diru-baldintza moldakorrek mantentzea erabakiko baita.

Garapen bidean dauden ekonomiak pixka bat bakarrik haziko dira, baina munduko hazkunderaren bi heren baino gehiago eragiten dute. Ekonomia aurreratuen atzerriko eskaria handitzeak hazkundera ekarriko du, baina finantza-baldintzak kaskartzeak moteldu egingo du barne-eskaria. Hala, Txinako hazkundera % 7,5 inguruan mantentzea espero da.

Ekonomiaren susperraldia ez da berdin gertatzen ari ekonomia aurreratu guztietan. Hazkunderik handiena Estatu Batuetan gertatuko da (2014an % 2,8); Japoniako hazkundera, berriz, % 1,4ra mugatuko da, 2014ko eta 2015eko kontsolidazio fiskalarengatik. Bestalde, euro-

guneko hazkundera ahula eta hauskorra izaten jarraitzea espero da (% 1,2), eta bi joera egotea: hazkunde handiagoa nukleoan, eta ahulagoa zorraren eta finantza-zatiketaren mende dauden herrialdeetan.

Testuinguru horretan, NDFk aurreikusten du Europaren batez bestekoa baino gutxiago haziko dela Espainia: ekonomia-jarduera % 1 inguru haziko da eta inflazio-maila apala izango da, % 0,8koa, 2015ean. Langabezia zertxobait jaistea espero da, baina % 25 inguruan jarraituko du.

Oraindik ahula da mundu mailako biziberritzea. Egoerak onera egin badu ere, berean diraite zenbait ziurgabetasunek. Hala, gorabidean diren merkatuei lotutako arriskuek okerrera egin dute, ekonomia aurreratuetako inflazio-tasa txikiek ere arriskua dakarkite jarduerari eta arrisku geopolitiko berriak agertu dira, hala nola Ukrainako, Siriako eta Irakeko tentsioak.

Nazioarteko agertoki horrek hazkunde neurritsuko agertoki makroekonomiko batera darama euskal ekonomia. Aurreikusi da BPGa % 1 handituko dela 2014an eta % 1,7 berriz 2015ean, enplegu mailak 2014an bere horretan jarraituko duelarik eta % 0,6 handituta 2015ean (lanaldi osoko lanpostutan neurtua, urte osoko batez beste).

### 2014-2015eko eszenatoki makroekonomikoa

	2013	2014	2015
BPG	-1,2	1,0	1,7
Barneko azken kontsumoa	-1,0	0,5	1,1
Etxeetako kontsumoa	-1,0	0,8	1,6
AAPPen kontsumoa	-1,3	-0,7	-0,7
Kapital Finko Gordina	-3,2	1,1	3,3
Barne-eskaria	-1,5	0,7	1,5
Kanpo-eskariaren ekarpena	0,4	0,4	0,2
BPGaren deflatorea	1,2	0,7	1,2

Enplegua		-2,1	0,0	0,6
Langabezia-tasa (batez bestekoa)		14,6	15,8	15,6

## **2.2. Aurrekontu-egonkortasunaren inplikazioak 2015eko aurrekontuan**

2015eko aurrekontuak koherentea izan behar du deskribatutako eszenatokiarekin. Beraz, sektore publikoak aurrekontu egonkorrak eduki behar ditu, eta funtsezko ekarpena egin behar dio ekonomiaren hazkundeari eta Gobernuaren helburuak betetzeari.

Eusko Jaurlaritza aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arau batzuen mende dago, eta horien jatorria da Europako Zerga Ituna (formalki, Ekonomia eta Diru Batasunerako Egonkortasun, Koordinazio eta Gobernantza Ituna).

Europako Zerga Ituna islatu zen defizita eta zorra pixkanaka zuzenduz joatean. Euskadin, indarrean dagoen akordioaren bideak 2015ean defizitaren helburua BPGaren % 0,7 izango dela aurreikusten du.

## **3. GOBERNU-LANAREN ESTRATEGIA ETA HELBURUAK**

### **3.1. Hazkunde iraunkorra eta horrek herritarrengan duen eragina berreskuratzea**

Giza garapen iraunkorraren kontzeptua erabiltzen da filosofia eta ardatz moduan, eta bertan txertatzen dira Gobernuaren estrategiak, helburuak eta jardunak. Filosofia horretan sartzen dira kontzeptu hauek: (1) Giza Garapena, hau da, pertsonen aukerak zabaltzea ekonomian, gizartean (banaketa-justizia, berdintasuna, etab.),

kulturan (jakintza, nortasuna, etab.) eta politikan (bizitza publikoan parte hartzea); eta (2) Iraunkortasuna, hau da, egungo belaunaldiaren premiak asetzeagatik kolokan ez jartzea etorkizuneko belaunaldiek beren premiak asetzeko gaitasuna.

Euskadik aurrerapen handiak egin zituen giza garapen iraunkorrean, orain sartuta gauden atzeraldi gogorra baino lehen.

Egungo legegintzaldiaren hasieran atzeraldi gogorra zegoen. Egoera hartan, helburu errealista bakarra zen ekonomia-atzeraldiak eta finantza-eskasiak giza garapen iraunkorrari egiten zioten presio gogorra arintzen saiatzea, gizarte-politikak eta ekonomia bizkortzeko politikak diseinatzuz, eta zaindu beharreko mugarriak ezarriz. Hala, lehentasuna eman zitzaien herritarren oinarrizko premiak asetzeari (gehienbat, hezkuntzan, osasunean eta gizarte-ongizatean) eta langabeziaren kontrako borrokari (enplegu-politika aktiboen bidez eta lehiakortasuna hobetuz).

Urte eta erdiko legegintzaldiaren ostean, ekonomiaren egoera itxaropentsuagoa hasi da izaten. Lehenbiziko aldiz, 2014ko lehen hiruhilekoan, euskal ekonomia hazi egin da urtetik urtera, eta perspektiba makroekonomikoak positiboagoak izaten hasi dira.

Nolanahi ere, ekonomiaren hazkundera neurritsua izango da, gure aurreikuspenetan bezalatsu. Finantza publikoen egoera ez da nabarmen hobetuko, sarrera fiskalen ustezko igoera konpentsatuko baitu defizit-muga apalagoak.

Beraz, Gobernuak bere bi helburuei eusten die: herritarren oinarrizko premiak asetzea eta hazkundera eta enplegua sortzeko palanka izatea.

### **3.2. Herritarren oinarrizko premiak asetzea, ezinbesteko oinarria**

#### **3.2.1. Osasun-sistema: herritarra, eragile aktiboa**



Osasuna herritarren oinarrizko premia da, eta haren araberakoa da pertsonen eta gizartearen bizi-kalitatea eta ongizate-maila. Gobernu honek, 2015eko aurrekontuen barruan, lehentasuna ematen dio osasun-politikari eta hura hornitzen duen osasun-sistema publikoari; gure herritarrek oso ongi baloratzen duten sistema da hori, eta erreferentea da Europan eta gainerako Estatuan.

Ekonomiaren eta finantzen krisialdi sakon baten ondoren, hain zuzen ere, zaindu eta indartu egin behar dira Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren oinarriak: unibertsaltasuna, elkartasuna, zuzentasuna, zerbitzuen kalitatea eta herritarren parte-hartzea.

Zaindu eta indartu egin behar da, halaber, osasunaren marko instituzionala, lege horren 2. artikuluan agertzen dena: 'euskal aginte publiko guztien lehentasuneko zeregina da, izan, jarduera sozio-ekonomikoko sektore bakoitzean osasuna sustatzea eta indartzea'.

2013-2020ko Osasun Planean biltzen dira euskal herritarren osasuna hobetzeko estrategia guztiak, eta osasun-politikak indartu egin du bere izaera mutidiziplinarra, osasunaren zeharkako ikuspuntu berria gainerako politika publikoen barruan eta, ondorioz, bere erakunde arteko izaera. Azken helburua da, hain zuzen ere, herritarra eragile aktibo bihurtzea, bere osasunaren kontzientzia eta konpromisoa hartzea, eta osasunaren kultura indartzea, sustapena eta prebentzioa azpimarratuz.

Eusko Jaurlaritzak osasun-politikaren arloan 2015ean daukan konpromisoa da erantzun egokia ematea gure gizarteari, non osasunari buruzko espektatibak gero eta handiagoak diren eta baliabide publikoak gero eta eraginkorragoak izatea exijitzen den. Gizarte- eta demografia-aldaketek (adibidez, jaiotza-tasa murriztea, adineko pertsonak eta eritasun kronikoak dituztenak ugaritzea, familia-egituraren aldaketak, eta teknologia medikoen garapenak eragindako gastua haztea) kudeaketa eraginkorraren metodoak

berritzea exijitzen dute, Euskadiko Osasun Sistema iraunkorra izan dadin.

Horregatik, Eusko Jaurlaritza Euskadiko osasun-politika birbideratzen ari da: osasun-sistema publikoaren ardatza pertsonak dira, herritarrak eta haien osasun-premiak dira xedea, eta ahalik eta eraginkortasunik handiena bilatzen da, Eusko Jaurlaritzako gainerako Sailekin eta erakundeekin elkarlanean, batik bat osasun-prebentzioaren eta -sustapenaren arloan. Era horretan, pertsonak daude (banaka hartuta nahiz erkidegoan hartuta) osasun-estrategiaren erdigunean, bai eta sistemaren erdigunean ere. Haien autonomia sustatzen da, erantzukizuna har dezaten eta beren osasunari eta eritasunari buruzko erabakiak har ditzaten. Lankidetzar-arloak eta -tresnak finkatzen ari dira gaixo-elkarteekin eta hirugarren sektorearekin. Eta osasun-zerbitzuak definitzen, antolatzen eta hobetzen parte hartzeko bideak jartzen dira, alde batera utzi gabe adikzioak prebenitzeko eta artatzeko ahaleginak.

Ildo horretan, kronikoak artatzeko estrategiarekin jarraituz (gaixo horientzako arreta ez zatitzea eta arretaren jarraipena bermatzea), lehen mailako arreta eta ospitaleko arreta integratzeari ekingo zaio.

Lehen mailako arretak kontrolatu behar du gaixo kronikoa, adinduna eta mendekoa. Gaixo akutuaren kasuan, lehen mailako arretak kudeatu behar du gaixoarentzako laguntza, ahalik eta konplexutasun txikienarekin eta ahalik eta etxetik hurbilen, bere osasun-premien arabera.

Ospitaleko arretak erreferentea izan behar du patologia konplexuetan, arreta pertsonalizatua eman behar du, goi-teknologia erabili behar du diagnosirako eta terapiarako, eta aholkua eman behar dio lehen mailako arretako medikuari, batez ere gaixo pluripatologikoen kasuan.

Horretaz gainera, 2015ean, gizarte- eta osasun-arloan eskumenak dituzten erakundeen arteko lankidetzak bultzatuko da, helburu eta xede berak definituz, bi sektoreetako profesionalen arteko elkarlana sustatuz, bi sektoreetako departamentuen eta erakundeen arteko akordioak eginez, eta sistema iraunkorra eta bikoiztasunik gabekoa izaten laguntzen duen formula integratzaile bat garatuz.

Aurrekontuak osasun-arloko ikerketaren eta berrikuntzaren alde egiten jarraituko du, betiere defizit-helburua betez. Sendotze- eta orientatze-etapa estrategiko horren baitan, funtsezkoa da osasun-arloko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategia bat edukitzea, sistemaren aktiboak eta gaitasunak bidera ditzan, iraunkortasuna eman diezaion, I+G+b prozesuak eraginkorrak izateko bidea jar dezan, eta aberastasun-iturri izan dadin. Osasun-ikerketari eta -berrikuntzari buruzko jarduerak bat etorriko dira beste eragile batzuen I+G+b jarduerekin -bai Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarekoak bai enpresetakoak-, batez ere Euskadiko Espezializazio Adimendunaren Estrategien baitan (RIS3), non biozientziak/osasuna den eremu lehenetsietako bat.

Garrantzitsua da sistemaren eraginkortasunik ezak zuzentzea ere, informazio-teknologia berriak eraginkortasunez erabiltzen hastea eta gaixoen segurtasun-programak sendotzea. Azken urteotan aurrerapen handiak egin dira, baina garrantzi handiko arazoa da, bai ospitaleetan bai lehen mailako arretan. Praktika asistentzian teknologia, farmakoak eta pertsonak elkartzen dira. Eta elementu horiek elkartzen diren lekuan akatsak eta kalteak sortzen dira, eta horiek ondorio larriak izan ditzakete gaixoentzat. Horregatik, gaixoaren segurtasuna lehenesten da.

### **3.2.2. Hezkuntza-sistema, ikasleen aniztasuna eta bikaintasuna bultzatzen**

Hezkuntza da ongizate-estatuaren oinarrietako bat, bai eta tresna estrategikoa ere Euskadiko giza eta gizarte-kapitala osatzeko. Ikasle bakoitzak bere gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko ekimenak abiarazi behar dira. Hezkuntza-politikak, era berean, ikasleen aukeraber dintasuna eta garapen integrala bermatu behar du, gizartea justuagoa izan dadin.

Ikuspuntu horretatik, 2015eko aurrekontuek -ahal den heinean- erantzun bat emango diete Euskadiko ikasleen hezkuntza-premiei eta irakasleen prestakuntza-premiei (beren lana hobeto egin ahal izan dezaten), eta bultzada bat emango diete hezkuntza-sistema berritzaile bati. Era berean, lanbide-prestakuntza malgu bat ematen lagunduko dute, bai eta bizialdi osoko ikaskuntza martxan jartzen eta Euskadiko ekoizpen-sistemaren eskakizunei erantzuten dien zientzia-politika bat sendotzen eta eusten ere.

Gobernuak sendotu nahi duen zientzia-politikak Euskadin jakintza bermatu eta ekoizpen-sistemaren eskakizunei erantzun behar die, Euskadi 2020 Zientzia eta Teknologia Planaren aurreikuspenen ildotik. Helburu horrekin, eutsi egingo zaie ikertzaileak prestatzeko eta ikerketarako talentua erakartzeko politikei, Ikerbasque deialdiaren bidez, bai eta ikerketa-talde sendotuentzako deialdi berriari ere.

Horregatik, ahalik eta kontsentsurik handienarekin ari da garatzen legeria eta arautegi berri bat, bai Heziberri 2020 Planaren baitan, bai Lanbide Heziketaren eta Unibertsitatearen baitan. Hain zuzen ere, EAEko curriculumak finkatzeko dekretuak egiten ari dira, 2015-2016 ikasturtean ezarriak izateko. Horretaz gainera, 2015ean Lanbide Heziketako IV. Plana eta 2015-2018 Unibertsitate Plana abiaraziko dira. Ekitaldi honetan, ustez, Euskadiko Lanbide Heziketaren Legea onartu eta Euskadik LOMCE erreformatzeko jarritako errekurtsioek erantzun egokia jasoko dute.

Euskadiko Lanbide Heziketaren Legea esparru berri bat osatzen saiatuko da (Prestakuntza, Berrikuntza eta Ekintzaile-sena elkartzuz),

enpresen eta pertsonen premia guztiak modu malguan bilduz: kontuan hartuko dira lanbide-heziketaren modalitate guztiak (hezkuntza-sistemakoa nahiz enplegurako lanbide-heziketa), aitorpena eta bultzada emango zaie laneko gaitasunak ikasteko eta eskuratzeko modu guztiei, eta adin aktiboan dauden herritar guztiengana zabalduko ditu bere neurriak eta ekintzak. Halaber, LHko Zentroetan berrikuntza garatzeko modua emango du, ETEei lagunduz eta Zentro horietan enpresak sortuz, ekintzaile-sena gauzatu ahal izan dadin eta denetariko ekoizpen-sektoreak bizkortu ahal izan daitezen.

Bizialdi Osoko Ikaskuntzaren Legea 2013ko urrian onartu zen, eta Administrazioak martxan jarri beharreko neurri batzuk azaltzen dira bertan.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatua ateratzea bilatzen duten Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programen ordeztu garatuko dira Prestakuntza Iragankor Bateratua emateko Programak. Eta, ondoren, Oinarrizko Lanbide Heziketa ezarri beharko da, euskal Administrazioak finkatutako ereduari eta arautegiari jarraituz.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak 0-6 urteko Arreta Goiztiarreko Eredua bultzatu eta ikasleen heziketa inklusiboa bultzatzen jarraituko du, Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoaren bidez eta berariaz esku hartzeko programen bidez (hala nola Hamaika Esku).

Eusko Jaurlaritzak ikastetxe gehiagotara zabalduko du hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida-plana, jarrera diskriminatzaileak ezabatzeko eta elkarbizitza baketsua sustatzeko. Lehendakariarekin batera bultzatuko du Bake eta Bizikidetzak Plana ikasgeletan. Genero Berdintasunerako Plana ezartzen ere lagunduko da.

Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-eredu eleaniztuna bultzatuko du, hirueleduna, euskara ardatz duena, eta horrek irakasle asko atzerriko hizkuntzan prestatzea eskatuko du.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien eremuan, Eusko Jaurlaritzak Sare Hezkuntza izeneko programa ezarriko du, Ikaskuntzarako eta Ezagutzarako Teknologietara igarotzeko, eta irakaskuntza/ikaskuntzako prozesuan teknologien erabilera, azpiegitura digitalen erabilera arduratsua, ikasleen prestakuntza eta material digitalak, bereziki euskaraz, sortzea eta indartzea ahalbidetuko dira.

Unibasq Kalitatearen Euskal Agentziak Euskal Unibertsitate Sistemaren eraginkortasuna eta kalitatea ikuskatuko ditu, euskal unibertsitateek nazioarteko sailkapenean duten posizioa hobezaten, Nazioarteko Bikaintasun Campusa kontsolidatuz.

Eusko Jaurlaritzak beken politika gure gizarte-inguruneko errealitate sozioekonomiko aldakorrera egokituko du, eta unibertsitate-eremuan bikaintasun akademikoko beka berrorientatuko ditu, beka orokorraren barnean hartuz.

Hezkuntza-sistemaren etengabeko hobekuntzan, Jaurlaritzak ebaluazio-kulturari eman dio enfasi handiena. Lanbide Heziketako III. Planaren eta 2011-2014ko Euskal Unibertsitate Planaren ebaluazioa egingo da, eta horrek, zalantzarik gabe, Lanbide Heziketako eta Euskal Unibertsitateko Sistemak itxuratzen lagunduko du, gero eta kalitate handiagoarekin bikaintasunerantz bideratzeko.

Kanpo-ebaluazioa hezkuntza-sistemaren emaitzak jakiteko eta hobekuntza-planak egiteko beharrezko tresna denez gero, 2015eko ekitaldian, Sailak bi kanpo-ebaluazio egingo ditu: batetik, PISA2015 (15 urteko ikasleei egindako ebaluazioa), eta bestetik, 2015eko Diagnostiko Ebaluazioa (errolda-ebaluazioa, Lehen Hezkuntzako 4.

mailako eta Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztiek parte hartuz).

### **3.2.3. Hizkuntza-politika: Euskara, Jaurlaritzaren elementu estrategikoa eta zeharkakoa**

Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetan hizkuntza-politikaren arloan egingo duen jarduna Euskararen Agenda Estrategikoan (2013-2016) dago definituta, eta euskara sustatzeko ekimen guztien ikuspuntu orokorra eta bateratua bildu nahi du. Era berean, estrategiak lehentasunak ezarri nahi ditu etorkizunari begira. Euskararen Agenda Estrategikoa egiteko kontuan izan diren oinarrizko dokumentuak honako hauek dira: '2012-2016ko Gobernu Programa', 'Euskara 21. Itun berri baterantz', 'ESEP - Euskara Sustatzeko Ekintza Plana' eta 'Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren lan-ildoak. 2012-2016'.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila arduratuko da Agenda kudeatzeaz. Hala eta guztiz ere, plangintza sektorial propioa duten beste sail batzuek ere (Osakidetza, Ertzaintza eta Justizia) funtsezko zeregina izango dute, baita EITBk ere. Agenda abian jartzeak eragina izango du arauen, antolaketaren, aurrekontuen eta finantzen eremuan, erakundeen arteko harremanetan eta beste jardun batzuetan. Euskararen Agenda aurten bertan erabiltzen hasi ahal izango dela dago aurreikusita.

Euskararen Agenda Estrategikoak guztira 167 ekintza biltzen ditu, 13 jardun-ildotan banatuta, lehendik aipatu diren plan sektorialetan eta Eusko Jaurlaritza osoaren V. Erabilera Plan Nagusian aurreikusitako ekintza zehatzez gain.

Azkenik, parte-hartze sozial handia izango duen ekimen bat abian jarriko dela adierazi behar da. Euskararen erabileraren normalizazioan aurrerantz jarraitzeko lurzoru sendo bat eraiki nahi da, euskal

aniztasun sozial eta politiko aberatsak identifikatzeko erabiliko duen lurzorua, inork bere oinarritzko uste sendoei uko egin behar izan gabe.

Ondoren adieraziko diren jardun-arloei arreta berezia eskainiko zaie, azken hiru hamarkadetan euskararen hazkundera iraunkorra izateko bereziki garrantzitsutzat jotzen baitira: euskararen transmisioa familian eta hezkuntza-sisteman, pertsona helduek euskara ikastea, aisialdiaren, kirolaren eta IKTen eremua, eremu sozioekonomikoa, eta hobekuntza etengabea eta trinkoa hizkuntza-eskubideak benetan errespetatzeko. Hori guztia, euskararen lurraldeetako erakunde publiko eta sozialekin lankidetzan jardutea bazter utzi gabe.

#### **3.2.4. Kultura: giza garapenaren funtsezko elementua**

Gaur egungo testuinguruan hauskortasun ekonomikoa eta aldaketa sozial bizkorak dira nagusi, eta globalizazioak, arlo digitalaren etorrerak eta eredu ekonomiko eta sozial jakin baten krisiak eragin handia dute pertsonen eta nazioen bizitzan; horregatik da bereziki beharrezkoa kultura. Kultura pertsonen erabateko garapenaren aldeko apustua den heinean, funtsezko gaia da lelo nagusitzat "pertsonak helburu" duen legegintzaldi honetan.

Hizkuntza propioa duen, elebiduna eta eleanitza den herri honetan, hizkuntza eta kultura garatzeko laguntza erabakigarria da gure burua erkidego gisa aintzat hartzeko eta gu herri gisa aintzat hartuak izateko. Hazkunde ekonomikoan eta berrikuntzan ere oso tresna garrantzitsua da, Europar Batasuneko plan estrategikoei onartzen duten bezala. Ezin da ahaztu kulturak Herri-marka baten (*Basque Country*) sendotze eta dinamismoari egiten dion ekarpena, bereizkuntzako eta erakarpeneko faktoreak proiektatuz mundura, gure herria eskala globaleko merkatu batean kokatzeko oso garrantzitsuak diren faktoreak. Etxepare Institutua tresna egokia da



gure herriaren, gure hizkuntzaren, gure kulturaren eta sortzaileen loturan eta nazioarteko proiektzioan laguntzeko.

Jaurlaritzak, lehenik eta behin, Euskadin kultura-sormena eta -produktzioa biziberritzeko apustuari eutsi nahi dio, sormenerako, ikusgai izateko eta hedatzeko laguntza publikoen eraginkortasuna hobetuz, eta aro digitalerako egokitzapenean lagunduz eta nazioartekotzearen erronkei behar bezala erantzunez. Kulturaren eta sormenaren industriek garrantzi handia dute kulturaren, baina baita herrialde baten ekonomian ere. Hainbat kulturatan, adibidez euskal kulturaren, non industriak barne-merkatuaren mugapenei aurre egin behar dien, nazioartekotzea ez da soilik kultura-proiektzioarako edo -diplomaziarako estrategia bat; izan ere, enpresa-garapenerako osagai argia du, esportatzeko ahalmenaren hobekuntzaren bitartez.

Bestalde, Jaurlaritzak kultura-ekitaldi eta -erakunde sare garrantzitsuari laguntzen jarraitzea du helburu, gizartean errotuta dauden, jarduera bultzatzaile gisa baliagarriak diren eta nazioartean proiektzioa duten heinean kulturaren eragina dutelako, baita merkataritzan, turismoan eta enpleguan ere. 2015. urtea inflexio-puntua izango da nazioarteko erreferentziazko proiektuen euskal mapan, Tabakalera abian jartzearekin eta Donostiaren Europako Kultura Hiriburutzaren prestakuntzarekin.

Gainera funtsezko urtea izango da eskura dugun hurbiltasuneko kultura-zerbitzuen sare osatuena sendotzeko, liburutegi-sarea alegia, kultura-ohiturak aktibatzeke oinarri gisa eta etengabe eraikitzen egongo den liburutegi nazional digital batean sartzeko puntu gisa.

Helburu horiek lortzeko beharrezkoa da gobernantza partekatzea. Herriko gainerako erakundeekin koordinatzea eta kultura-politiken definizioan eta jarraipenean kultura-agenteeke parte hartzea funtsezko gaiak dira. Politikak partekatzea eta baliabideak ordenatzea funtsezkoa da helburu konplexuei aurre egiteko, batez ere zailtasun handiko une honetan. Ildo horretan, Euskal Kultura Ondarearen Lege

berri eta berritzaile baten eta Euskal Herriko Dokumentuen eta Artxiboen Legearen garapena funtsezkoa izango da.

Kirolaren arloan beharrezkoa izango da Jaurlaritzaren plan estrategiko bat diseinatzea, Euskadi bere herritarrek egiten duten jarduera fisikoan erreferentzia izan dadin. Horrekin aldaketa kultural eta sozial bat egin nahi da, jarduera fisikoa osasunaren sinonimo izan dadin. Jarduera fisikoa haurtzarotik sustatu nahi da, baita euskal federazio-sarea berrantolatu eta goi-mailako kirola indartu ere, pertsonak oinarri dituen legegintzaldi honetan funtsezko proiektuak baitira.

Gainera, Euskadiko Kirol-arloko Lanbideak egikaritzeari buruzko Legea bultzatuko du Eusko Jaurlaritzak, kirolaren lanbide jakin batzuk egikaritzearen funtsezko alderdiak antolatu nahi dituen, horiek espresuki aintzat hartuz, lanbide horiek egikaritzeko beharrezkoak diren titulu akademikoak zehaztuz, eta lanbide bakoitzari dagokion eremu funtzional orokorra esleituz.

Gazteriaren arloa erabakigarria da aro-aldaketan murgilduta dagoen eta krisi ekonomiko izugarriak astinduta dagoen gizartean, gazteak izanik krisi horrek gehien kaltetzen dituenak. Arlo horretan, erakunde arteko lana funtsezko elementua da.

EITB ikus-entzunezkoen euskal sisteman funtsezko zutabea da, eta zeregin garrantzitsua du hizkuntza-politikari dagokionez nahiz kulturaren sustapenari dagokionez. Zehazki, ikus-entzunezkoen euskal industria sustatzen du eta komunikazio-gune propio baten garapena errazten du. Bi ezaugarri horiek ezinbestekoak dira informazio- eta kultura-kontakteta propioa behar duten herri eta nazioentzat, hala herri barnean nola kanpoan.

### **3.2.5. Gizarte-laguntza behartsuenei**

Ongizate ekonomikorako eskubideak eta gizarte-proiektu komuna guztiz partekatzeke eskubideak, bizitza duina biziz, euskal gizartean

dauden estandarren arabera, zeregin erabakigarria dute gizartegintzan.

Gizarte-zerbitzuak ongizate-estatuaren laugarren zutabea dira hezkuntzarekin, osasunarekin eta pentsio-sistemeekin batera. Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea eta Familiei Laguntzeko Legea dira gizarte-politikaren oinarri diren funtsezko zutabeak. Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen garapenerantz aurrerapausoa eman behar da, eta horrek zera dakar, Foru Aldundiekin eta Udalekin batera eskura dauden aurrekontu-baliabideen esparruan dagoeneko handiak diren gizarte-zerbitzuei estaldura emango dien arau-esparru baten lantzean aurrerapausoa ematea.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak Hirugarren Sektorearekiko lankidetzak sustatuko du, Hirugarren Sektore Sozialaren Lege bat eginez, beste hainbat alderdiren artean sektore publikoaren eta hirugarren sektore sozialaren arteko lankidetzak bultzatzeko esku-hartze sozialaren eremuetan.

Plangintzaren eremuan, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa nabarmentzen da, 2014tik 2017ra bitarteko aldi indarrean egongo dena. Planean bilduta dauden hainbat ekintzaren ezarpena Eusko Jaurlaritzari dagokio.

Planak egiteko eremu horretan Zahartze Aktiboaren Plana aipatu beharra dago, euskal herritarrek modu independentean eta osasun onarekin denbora gehiago bizi daitezen lortzera bideratutako hainbat neurri osagarri izango dituen, adibidez Euskadi Lagunkoia programa, gure gizarte- eta osasun-zerbitzuen iraunkortasuna eta eraginkortasuna hobetzera bideratutako proiektu pilotuak, bere jardun koordinatuaren testuinguruan, eta oro har, mendetasunari, ezgaitasunari eta zahartzeari lotutako arreta-ereduetan jakintza eta berrikuntza kudeatzeko jarduerak, eta adinekoei egiten zaizkien tratu

txarrak prebenitzera eta antzematera bideratutako neurriak sustatzea.

2015eko aurrekontuek, eskura dauden baliabideen esparruan, familientzako gizarte-laguntzei eta pertsona kaltetuenentzako garapen komunitarioa bultzatuko duten laguntzei eustea barne hartuko dute, aldi berean gizarte-politiken eta emandako laguntzen kontrola eta jarraipena eginez, eta arreta berezia jarriz gizarte-iruzurra kontrolatzera bideratutako neurriei.

Gizarte-laguntzako politika, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean bilduta dagoena, kohesio-tresna garrantzitsu bihurtu da krisi ekonomikoaren aurrean, eta Euskadiri gizarte igualitarioko profilari eutsi ahal izatea ahalbidetu dio, Europar Batasunean dauden pobrezia- eta desberdintasun-adierazleak baino txikiagoak izanik. Eskubide bikoitzeko eredu bat da, batetik, bizitzako oinarrizko premiei aurre egiteko nahikoak diren baliabide ekonomikoak lortzeko eskubidea (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, Etxebizitzaren Gastuetarako Prestazio Osagarria, eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak) eta, bestetik, gizarteratzera eta laneratzera bideratutako laguntza pertsonalizatuak izateko eskubidea, marjinazioaren kronifikazioa saihestuz eta gizarteratzea bultzatuz.

Gizarte-zerbitzuak sustatzeko eta eskarira egokitzeko bidean, zerbitzu soziosanitarioen eremuan lankidetzeta-mekanismo berrien garapena sustatuko du Eusko Jaurlaritzak.

### **3.2.6. Etxebizitza: bere zeregin soziala eta enpleguan duen eragina**

Etxebizitza-politikaren helburua, merkatu librean etxebizitza bat eskuratu ezin dutenei, bereziki krisi ekonomikoaren ondorioz gizarte-premiako egoeran daudenei, etxebizitza duina eta egokia eskaintzea da. Helburu hori lortzeko tresna nagusia epe ertain-luzerako

alokairuaren lehentasunezko sustapena da, lehentasunezko kolektiboek etxebizitza lor dezaten bultzatuz.

Era berean, Etxebizitzaren Legearen onarpena garrantzitsua izango da.

Bestalde, aurrekontu-baliagarritasunaren barruan, hiri-birgaitzea, -birsorkuntza eta -eraberritzea bultzatuko da, bereziki enplegua sortzea, energia aurreztea eta gizarte-kohesioa helburu duten jardunak, Etxebizitza Birgaitzeko Renove Planaren bitartez.

Eraikitakoa birgaitzea, eraberritzea eta birsorkuntza eta babes publikoko etxebizitza berriak sustatzea, bultzada handia izango dira zailtasun handiak dituen sektorearentzat, eta zuzeneko eta zeharkako enplegua sortuko dute.

### **3.3. Hazkundera eta enplegua**

Krisi ekonomikoaren ondorioz dramatikoa lanpostuen galera da, EAEko milaka familia daude egoera horretan. Hortaz, enplegua sortzea Jaurritzaren jardun politikoaren oinarritzko eta lehentasunezko ardatza izango da 2015. urtean ere; horretarako bi jardun-ildo handi erabiliko ditu: (1) enplegu-politika aktiboak eta (2) lehiakortasuna hobetzera eta ekonomia-hazkundera bideratutako politikak, eta horien bitartez, enplegua sustatzera bideratutakoak.

#### **3.3.1. Enplegu-politika aktiboak**

2014-2016ko Enplegu Planak, Euskadi ekonomiaren ikuspuntutik jasaten ari den egoera zailari eta, horren ondorioz, enpleguan duen eraginari erantzuteko sortzen denak, hala langabetuen nola okupatuta daudenen enplegurako prestakuntzako jardunei paper garrantzitsua ematen die, baita gazteen enplegua sustatzeko jardunei ere, betiere arreta berezia emanez bereziki kalteberak diren

kolektiboei, hau da, epe luzeko langabetuei edo desgaituei, tokiko eta eskualdeko enplegu-planen bitartez, enplegua sustatzeko beste hainbat neurriren artean. Enplegu-politika aktiboen dinamizazioa, ekintzailtza eta prestakuntza funtsezkoak dira enpleguaren aldeko estrategia eraginkor bat garatzeko.

2015ean arreta berezia eskainiko zaie gazteak eta gizartean aukera gutxien duten kolektiboak (desgaituak, 45 urtetik gorakoak, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenak eta iraupen luzeko langabeak) lan-merkatuan sartzen laguntzen duten politika publikoei, baita lana eta familia uztartzen laguntzen duten neurrien sustapenari ere. Gazteen enpleguari emango zaion laguntza gazteen enplegarritasunera eta laneratzea bideratuko da; horretarako, lehen lan-aukera, autoenplegurako laguntza eta bikaintasuneko eta diziplina anitzeko prestakuntza sustatuko dira.

Enplegurako lanbide-heziketa, administrazio batek langabeziaren, kualifikazio txikiaren eta lanpostua galtzeko arriskuaren aurka borrokatzeko ezar dezakeen politika aktibo nagusietako bat da. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua politika hori ezarriko duen agentea da eta enplegu-eskatzaille bakoitzari plan integrala eta pertsonalizatua eskainiko dio eskatzaillearen lanbide-profilera egokitutako programen bitartez; horrez gain, enplegu-eskatzaille horiei enplegua bilatzen lagunduko zaie aholkularitza emanaz, bideratuz eta hainbat prestakuntza-ekintzarekin lagunduz. Hori guztia, berez, enpresen benetako premiekin eta laneratzea gauzatzeko eragile guztien ekarpenarekin lotuta.

Era berean, Lanbide Heziketako Sistemaren aldaketa sustatuko da, enplegarritasunera eta lehiakortasunera gehiago bideratzeko, lanbide-heziketa malgua oinarri hartuta, txandakako eredu berria sortzeko, eta Lanbide Heziketaren IV. Euskal Planarekin amaitu ahal izango da. Enplegarritasunak gero eta profesionaltasun korapilatsuagoa eskatzen du, pertsoneri gero eta prestakuntza-maila

handiagoak eskatzen zaizkien neurrian. Gizarte-eredu desberdina eratzen ari diren etengabeko eraldaketak ikus daitezke, egitura-aldaketa, konplexutasun eta kezka handiekin. Eraldaketa horiek egiteko, pertsonak funtsezkoak dira.

Ikasleak lan-munduan sartzea zailtasuneko aldia bizitzen ari da gizartearen egoera ekonomikoaren ondorioz. Eusko Jaurlaritzak unibertsitateko eta lanbide-heziketako ikasleak enpresetan sartzea ahalbidetuko duten ekintzak ezarriko ditu, lan-merkatuan sartzea ahalbidetuko dien lanbide-esperientzia hartzeko ikasle horiek. Halaber, ikasketak bukatu dituzten lanbide-heziketako ikasleek enpresak sor ditzaten sustatuko da, prestakuntza-zentroen laguntzarekin. Ikasleak trebatuko dira jakintza tekniko ez gain berrikuntzako eta hobekuntzako gaitasunak eskaintzeko enpresei.

### **3.3.2. Lehiakortasuneko egitura-politikak enplegua sortzeko eta hazteko palanka gisa**

#### ***- Urrats berriak berrikuntza adimendunaren estrategian***

Euskal ekonomia suspertzen hasi da, baina horrek ez du esan nahi politika ekonomikoaren testuingurua biziki konplikatua ez denik oraindik ere; beraz, hazkunde-potentziala areagotzera bideratutako plan eta erreformak bultzatzea are garrantzitsuagoa da orain. Egoera hori bereziki egia da berrikuntzaren esparruan; izan ere, Berrikuntzaren Euskal Sistema eraldatzera bideratutako esfortzu handia aurreikusi da, emaitzak indartzeko. Horretarako, estrategia berria lantzen ari gara 2014. urte honetan burutzeko asmoz, programa berriak 2015erako erabat operatibo egon daitezzen.

2014. urteko lehen hilabeteetan egin ditugun urratsen artetik zenbait aipatzearren, lehenik, Berrikuntzaren Euskal Sistemaren gobernantza-eredua indartzea nabarmenduko dugu; horretarako, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua (ZTBEK)

apirilaren 8ko 49/2014 Dekretuaren arabera birmoldatu da, eta horren ondorioz, enpresa-esparruak eta zentro teknologikoen presentzia handiagoa dute Kontseiluan. ZTBEK berriak ekin dio bideari eta erabaki garrantzitsuak hartu ditu indarrean dagoen 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planaren (ZTBP) garapenarekin loturik: 2020. urtera arte indarrean egoteko egokitu egin du; hartara, alde batetik, Europako estrategia orokorrarekin eta, bestetik, berrikuntzaren esparruko laguntza-tresnekin eta, bereziki, Horizonte 2020 programarekin bat etorriko da.

ZTBP 2020 berria urtea amaitzen denerako prest egongo da, eta programa operatiboak 2015erako martxan egongo dira. Horretarako, ZTBEK-k aztertu ditu, jada, planaren oinarritzko ildoak eta espezializazio adimendunaren lehentasun estrategikoak (RIS 3), horiek baitira estrategia berriaren funtsezko zutabeetako bi. Berrikuntzaren euskal sistemaren hamar ahuleziak argi eta garbi identifikatu ditugu, eta horiek gainditzeko helburuak ezarri ditugu, betiere RISen lehentasun horizontalekin (aurrerago azalduko ditugu lehentasun horiek) erabat koherente izanik eta honako alderdi hauei erreparatuta: emaitzei eta enpresarekiko harremanari, hautatutako espezializazio-arloekiko konexioari, bikaintasunari, nazioartekotzeari eta gobernantzaren hobekuntzari.

Bestalde, RIS 3an lehentasun bertikalak zehaztu ditugu, honako alderdi hauek aintzat hartzen dituen triangulu batean oinarrituta: 1) gaitasun zientifiko eta teknologiko berezituak izatea, 2) produkzio-sare lehiakorra izatea, eta 3) aukera-esparruetara bideratzea. Lehentasun bertikalen behin betiko hautaketan honako hauek biltzen dira: energia, fabrikazio aurreratua, eta biozientziak eta osasuna, eta horietaz gain, lurraldearekin loturiko zenbait jarduera-nitxo ere aipatu behar ditugu. Bestalde, lehentasun horizontalak ere zehaztu ditugu, sistema eraldatzeko beste bektore garrantzitsuena osatzen duten



aldetik; hona hemen: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako euskal Sarea berrantolatzea, unibertsitate-azpistema espezializazio-arloetara gehiago bideratzea, talentua kudeatzea, nazioartekotzea, berrikuntza kudeaketa publikoan, berrikuntza eta enpresa-eraldaketa, eta gizarte-berrikuntza.

2020ko ZTBP plana erabat hedatzeko, aurrekontu-ahalegina sendotzera bideratutako printzipio ekonomikoak garatu behar dira, eta atzerriko funts gehien erakartzen dituzten baliabide publikoek palanka-efektu handiagoa izan dezaten bultzatu. Beste tresna garrantzitsu bat ZTBESko agenteen finantzaketa-eredua zehaztea izango da; izan ere, sistema helburuak betetzera eta ahuleziak gainditzera bideratzeko beharrezkoak diren pizgarriak bermatuko dira horrela.

- ***Industriaren garrantzia berreskuratzea***

Euskadiren historian eta orainaldian industriak garrantzi handia izan du, eta etorkizunak ere industrian oinarritu beharko luke. Enplegu produktiboa eta kalitatezkoa sortzeko gakoa lehiakortasuneko egitura-politikak dira, epe ertainera eta luzera emaitzak eskaintzen dituztenak eta hainbat elementu biltzen dituztenak, hala nola berrikuntza eta nazioartekotzea. Egitura-politika horiek industria hartzen dute protagonista nagusizat; industriak BEGd-aren % 23 osatzen du eta 2014tik aurrera herrialdearen susperraldia bultzatuko duen eragile gisa jarduten jarraitu behar du.

Egitura-politika horiek gauzatzeko, Eusko Jaurlaritzak hiru plan abiarazi ditu politika horiek zuzenean bideratzearen: 2014-2016 aldirako Industrializazio Plana, 2014-2016 aldirako Enpresak Nazioartekotzeko Plana (Nazioartekotzeko 2020rako Esparru Estrategiaren barruan), eta 2020rako Zientzia eta Teknologiaren Plana (aurten onartuko da).

2014-2016 aldirako Industrializazio Plana Eusko Jaurlaritzaren tresna da, euskal industriari laguntzeko tresna, sei urteko iraupena izan duen krisialdi sakona gainditzen laguntzeko tresna; izan ere, krisialdiaren eraginez enpresak itxi egin dira, enplegua galdu da eta industria-jarduerak behera egin du. Orain, hazkunde iraunkorraren bidera itzultzeko ahalegina egin behar dugu eta, horretarako, industria-sektore oso lehiakorak sortu behar ditugu, balio erantsi handiko produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa sendoez osatuta. Industria eta industriarekin loturiko zerbitzuak datozen urteetan enplegua sortzeko eragileak izango dira.

Industrializazio Planean finkatutako zazpi helburuak horretara bideratu ditugu, bost ardatz estrategikotan banatuta: ETEen finantzaketa eta berregituraketa; industria-arloko proiektu estrategikoak bultzatzea; manufaktura aurreratuko industria sendotzea; testuinguru lehiakorragoa sortzea industria eta energia arloetan; eta pertsonen aldeko apustua. Zeharkako plana izaki (hainbat plan eta sail eraginpean hartzen dituen), Plan hori gauzatzeko prozesua Jarraipen Batzordeak koordinatuko du; batzorde horrek planaren aurrerapen-maila monitorizatu eta ebaluatuko du.

**- *Manufaktura aurreratuko industriaren bidean eta proiektu traktoreak bultzatzen jarraitzea***

Plan horretan garatzen diren industria-politiken bitartez euskal industriaren espezializazioa ahalbidetuko duen esparrua bultzatu behar da, berrikuntzarekin eta fabrikazio aurreratuarekin loturiko berrindustrializazio oso teknologikoa gauzaturik. Horretarako, arlo eta sektore estrategikoetan (elektronika, energia, makina-erreminta) teknologia berriak txertatu eta erabil daitezkeen sustatzen jarraitu behar dugu.

Euskal industriak kostuarekin loturarik ez duen balioetan oinarrituta lehiatu behar du, eta manufaktura aurreratuan oinarritutako lehiakortasun-estadio berria lortzeko bidean aurrera egin behar du;

halaber, euskal industria-sarean trakzio-efektua izango duten industria-proiektu berriak ere bultzatu behar ditu. "Kluster"-politikak enpresa-proiektu jakin batzuk erakartzera bideratu behar du bereziki, eta honelako enpresa-proiektuak balioetsi behar ditu: enplegua eragiten dutenak, tokiko hornitzaileengan trakzio-efektua eragiten dutenak, eta tokiko ETEen artean balio-kateak indartu eta sustatzen dituztenak.

- ***Enpresa-ekintzailtza sustatzea***

Beste Plan batean –hain zuzen ere, 2013-2016 aldirako Jarduera Ekintzaileari Laguntzeko Erakunde arteko Planean–, bildutako ekintza guztiei laguntzeko tresnen panela sistematizatzen da, eta potentzial ekintzailea bultzatu eta sustatzen duen Ekintzailtzako Euskal Sistemak osatzen duen ekosistemako agente-sarea koordinatzen du. Plan horren bitartez, ekintzaileei laguntza integrala eskaini behar zaie eta Euskadiko ekintzaileei laguntzeko Legean bildutako laguntza-tresnak garatuko dira. Planaren jarraipena egiteko sortutako Erakunde arteko Mahai politiko-teknikoak eta Artezkaritza Kontseiluak plana behar bezala betetzen dela zaindu beharko dute.

Ekintzailtzaren kultura eta balioak sustatu behar dira gizartearen maila guztietan eta bizitzaren etapa guztietan. Euskadik erreferentziazko lurralde ekintzailea izan behar du; horretarako, aurrekontu-baliabideak aintzat hartuta, ekimen espezifikoak garatuko ditu balioa eta enplegua sortuko duten eta Euskadi lurralde inteligentea, dinamikoa eta ekintzailea izatea eragingo duten enpresa-proiektu berrien aitzindari izango diren profesionalak atxikitzeko eta erakartzeko. Enpresen barruko intraekintzailtza bultzatzeko ahalegin berezia egin behar da, enplegua eta jarduera ekonomikoa eragiteko potentzial handia duenez.

- ***ETEetan nazioartekotzea orokortu eta bultzatzea***

Nazioartekotzeko 2020rako Basque Country Estrategiaren barruan, 2014-2016 aldirako Enpresak Nazioartekotzeko Planean, Euskadiko ETEak nazioartean txertatzea eta horien nazioarteko lehiakortasuna sustatzeko premiari erreparatzen zaio.

ETEEK atzerrira atera behar dute enpresa-sare eta -agenteen laguntza eta lankidetzari esker. Horretaz gain, "klusterrek" Eusko Jaurlaritzaren tresna eta Planaren zati oso aktibo izan behar dute. Nazioartekotzeak palanka-efektua eragiten du enpresa-sare osoaren lehiakortasunean eta indartze-prozesuan. Nazioartekotzearen bitartez, sektoreak, merkatuak eta arriskuak dibertsifikatzen dira eta balio erantsi handiko enplegua indartzen da, nazioartean lehiatzen diren merkataritza-gaitasun handiko sektoreetan lan egiten denez.

Jaurlaritzak kanporako prozesu horretan lagunduko du: hazkunde-potentzial handiko merkatuei lehentasuna eman eta merkatu horietara bideratuko ditu, potentzial handiko herrialde eta eskualde jakin batzuetan. Multilokalizatzen diren enpresek, kanpo-merkatua konkistatzeaz gain, esportazioak areagotzen dituzte eta etxe nagusiko enplegua hobeki babesten dute. Enpresak Nazioartekotzeko Planaren barruan, lehentasunezko jardunak honako hauek izango dira, besteak beste: kanpo-jarduerari laguntzeko sistema sendotu eta indartzea, eta inbertsio estrategikoak erakarri eta finkatzea.

Planari jarraiki, Nazioartekotzearen Euskal Partzuergoa eratu da Nazioartekotzearen Euskal Sistemaren politikak gauzatzeko, eta programen betetze-mailaren nahiz bertan biltzen diren zerbitzuen jarraipena eta ebaluazioa egingo dela bermatuko du. Nazioartekotzearen Euskal Partzuergoan Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila, hiru Foru Aldundiak eta EAeko hiru Merkataritza Ganberak biltzen dira.

Enpresak nazioartekotzeko politika horiek gauzatzeko prozesua eta horien jarraipena testuinguru orokorrago batean txertatu behar dira;

hain zuzen ere, Euskadi esparru guztietan herrialde erakargarria eta erreferentziazkoa dela adierazteko erakunde-jardunen testuinguruan. Horretarako, Basque Country 2020 Estrategia plan integraltzat hartzen da, gizartearen, ekonomiaren eta erakundearen arloetako agente nagusiekin hitzartutako plana den aldetik, eta datozen urteotan kanpo-ekintzaren ardatz izango diren lurralde-eremuak identifikatu eta lehenesten ditu.

**- Nazioartekotzeko Esparru Estrategia eta Garapen Lankidetzak**

Gaur egun, nazioartean globalizazioak gero eta indar handiagoa du eta, horren ondorioz, herrialdeen arteko elkarrekiko mendetasunak areagotzeaz gain, lankidetzak eskemak etengabe bilatzera behartuta gaude, gobernantza globala bermatzearen. Premia horretatik abiatuta, Euskadiren nazioartekotzea lehentasunezko helburua da Eusko Jaurlaritza honen jardunean. Nazioartekotzea ez da hartu behar estrategia soilik ekonomikotzat, baizik eta herri-estrategiatzat.

Lehen aldiz, Eusko Jaurlaritzak Euskadi, oro har, nazioartekotzeko prozesua abiarazi du. Edo beste modu batean esanda, mundurako leihoa irekitzea, nazioartekotzea erakunde-agenden eta gizarte zibilaren beraren funtsezko erreferente gisa era dadin, enpresa-esparruan ez ezik, hezkuntzaren, osasunaren, kulturaren edo ingurumenaren esparruetan ere.

Nazioartekotzeko 2020rako Esparru Estrategia: Basque Country Estrategia 2014ko apirilaren 8an onartu zen, eta estrategia integraltzat hartzen da, Euskadiren sektore anitzetako interesak biltzeaz gain, datozen urteotan kanpo-ekintza garatuko den gai- eta geografia-esparruak identifikatu eta lehenesten dituen aldetik.

Ekimen horretan 2014-2016 aldirako bi plan estrategiko biltzen dira: Kanpo Ekintzako Plana eta Enpresak Nazioartekotzeko Plana. 2014-2016 aldirako Kanpo Ekintzako Plana ezinbesteko tresna da

Euskadiko erakundeen nazioartekotze-helburuak betetzeko jardun eta zerbitzuak definitu eta antolatzeko; aldiz, Enpresak Nazioartekotzeko Planaren helburua da euskal ekonomia eta euskal enpresak nazioarteko testuinguruan gero eta lehiakorragoak izatea.

2014-2016 aldirako Kanpo Ekintzako Planean 6 helburu estrategiko, 19 jardun-ildo eta 70 jardun zehatz biltzen dira Eusko Jaurlaritzaren kanpo-ekintza bultzatu eta koordinatzeko, betiere eraginkortasunarekin eta koherentziarekin loturiko irizpideei jarraiki. Planaren helburu zehatzak dira honako hauek: Euskadi munduan proiektatzea, sektore anitzeko interesak sustatzea, Euskadik Europaren eraikuntzan parte hartzea, Euskadiren eta kanpoko euskal komunitatearen arteko harremanak areagotzea, Euskadiren kanpo-ekintzaren eraginkortasuna eta kalitatea areagotzea, eta mundu justuago eta orekatuago bat eraikitzen laguntzea.

Azken batean, Nazioartekotzeko Esparru Estrategia horren bitartez, Euskadi bikaintasun-lurralde gisa kokatu nahi da testuinguru global honetan, bizi-kalitatearen eta gizarte-kohesioaren eredu gisa, eta lurralde berritzaile eta lehiakor gisa.

Bestalde, mundu justuagoa eraikitzen laguntzeko helburua betetzearren, Garapenerako Lankidetzaren 2014-2017 aldirako Urte Anitzeko Plangintza Estrategikoaren Jarraibide Nagusiak onartu ziren 2014ko apirilean; izan ere, 2014-2017 aldirako Lau Urteko Plan Zuzentzaile berria egiteko ezinbestekoa baitzen alde zuzenetatik horiek onartzea.

### **3.3.3. Enplegua bultzatzeko jarduera ekonomikoa mantentzeko/berraktibatze politikak**

#### **- *Produktzio-sektorearen finantzaketa***

Jaurlaritzak enpresa-sareari laguntzeko finantza-neurriak ezartzen jarraituko du, bai enplegua sortzen duten inbertsio-proiektuetarako,

bai zirkulatzailerako, kanpo-merkataritza finantzatzeko eta arazoak dituzten enpresa bideragarriak berregituratzeko; horretarako, lankidetzaz-inguruneak diseinatzen lagunduko die, langileen parte-hartzea sustatuta.

- ***Enpresen arteko lankidetzaz***

Produktzio-sektorea babesteko hainbat jarduera gauzatuko dira, eta horren adibide gisa, trakzio-enpresen eta enpresa hornitzaileen arteko lankidetzaz bultzatuko da, gorabidean dauden, iraunkorrak diren eta Euskadiren interesekotzat jotzen diren sektoreetan enpresa berriak sortzea sustatzeko eta enpresa berri horiek dinamizatzeko, merkatu edo produktu berrietarako sarbidea izan dezaten. Euskadiko trakzio-enpresek eginkizun garrantzitsua izaten jarraituko dute, eraginiko eta kalitatezko enplegua ere sortzen dutelako eta euskal ekonomia nazioartekotzeko aukera gehiago dituztelako.

Osagarri gisa, lurralde arteko eta eskualdeko oreka handiagoa ere bultzatuko da garapen sozial, ekonomiko eta industrialean, eta horretarako, deprimeturiko tokietan industrien berroneratzea faboratuko da.

- ***Merkataritza, ekonomiaren dinamizatzaile***

Gure ingurunea gero eta globalizatuagoa dagoen honetan, ondasun eta zerbitzuen merkatuan zenbait erreforma egin beharko dira eta txikizkako merkataritzan lehiakortasuna hobetu. Hori lortzeko, marketin-estrategiak eta inbertsioak garatu beharko dira teknologia berrietan ez ezik, giza kapitalean ere, eta giza baliabideak berregokitu egin beharko dira, lanbide-prestakuntza egokia eskainita eta belaunaldi-ordeztea ere alde batera utzi gabe.

Eusko Jaurlaritzak herrietako merkataritza-jarduerari bultzaz egin nahi dio eta zonaldeko dinamizazio-estrategiak garatzea ahalbidetu nahi du, aliantza horizontalen eta lankidetzaz publiko-pribatuko plataformen bitartez.

Jardun-ildo nagusiak 2014-2016 aldirako Merkataritza Planaren esparruan garatuko dira. Plan horretan hainbat laguntza-linea biltzen dira eta horietako zenbait linea jada nahiko finkatuta daude, hala nola, merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntzak eta merkataritza dinamizatzeko bulegoak; beste zenbait linea berriagoak dira, esate baterako, negozio-eredu berriei laguntzea, enpresa-transmisioa edo kudeaketa aurreratuko programak.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak autonomoei kreditua ahalbidetzeko lanean jarraituko du eta, oro har, autoenplegurako eta enpresa-sorkuntzarako laguntzak sustatzen jarraituko du; horretarako, lehen ezarpenean sortzen diren zailtasunak gainditzeko ahalegina egingo du eta dagokion asistentzia teknikoa eskainiko du, prestakuntzarako laguntzak emateaz gain.

- ***Turismoa, hazten ari den sektorea***

Euskadik baliabide turistiko asko ditu (gastronomia, ondarea, natura, paisaia, kultura) eta esperientzia anitzeko turismogune bihur daiteke, alde batetik, lurralde guztietako berezitasunak eta, bestetik, herrialde izateak ematen dion osotasun bakarra modu osagarrian uztartuz gero; horretarako, turismogune antolatua eta adimenduna eratu behar dugu. Euskal Turismoaren 2020ko Plan Estrategikoan Euskadiko turismoaren etorkizunari buruzko ikuspegi hori eskaintzen da; Plan Estrategiko horretan 2016ko Marketin Plana biltzen da eta Euskadiko turismo-enpresen lehiakortasuna areagotzea du xede, turismoak aberastasuna sortzeko egiten duen ekarpena ere areagotzeko.

Munduko turismoaren joerei erreparatuta, munduko ekonomian turismoak gero eta garrantzi handiagoa izango duela iragar dezakegu, eta turista mota asko egongo direla. Turistek gizarte-sareak eta mobile ingurunea asko baliatuko dituzte, informazio-iturritzat. Horrek esan nahi du kudeaketako eta kalitateko sistema aurreratuak beharrezkoak izango direla, turistak eskatzen duen



tratamendu gero eta pertsonalizatuagoa eman ahal izateko; halaber, erronka horri aurre egiteko, informazioaren teknologietan inbertsioa egin beharko da.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak ahalegin handia egingo du turismogunea bereiztera bideratutako berrikuntza sustatzeko, baita turismoarekin loturiko jakintza eta informazioa eskuratzeko sistemak hobetzeko ere. Aurrekontuetan, euskal berezitasunari (basque style) posizionamendu egokia emateko estrategia betetzen dela bermatu beharko da; horretarako, merkatu potentzial (herrialde) jakin batzuei lehentasuna emango zaie profilaren arabera, turismoaren ikuspegitik begiratuta, eta turismoarekin loturiko agente guztien lankidetzara eta bat-etortzea sustatuko da.

- ***Lehen sektorearen garapena***

Eusko Jaurlaritzak jakin badaki lehen sektoreak balio estrategiko handia duela eta landa-eremuko nahiz itsasertzeko ingurune bizia izatea ere oso garrantzitsua dela, xede dugun gizarte-ereduaren oinarritzat.

Pertsonak protagonista izanik, lehen sektorea berriz aktibatu eta landa-eremuko nahiz itsasertzeko ingurunea biziberrituz gero, gure nortasuna eta gure kultura zaintzen lagunduko dugu, baita ekosistemari eusten, eta landa-eremuko eta itsasertzeko ingurune iraunkorra sustatzen ere, betiere hiri-inguruneari balioa emanez.

Lehen sektorea garatzeko Nekazaritza Politika propioa behar dugu, Nekazaritzako Politika Bateratua (NPB) "eskualdeetara" gehiago bideratuta. Eusko Jaurlaritzak bultzatzen ari den proiektuaren bitartez, sektorea modernizatu eta produkzio iraunkor eta kalitatezkoa bermatuko da. Bereziki, 2015-2020 aldirako Nekazaritzako Politika Bateratuaren esparruan, Eusko Jaurlaritzak zera lortu nahi du Autonomia Estatutuaren bitartez Euskadiri esleitutako eskumena baliatuta, "administrazioa eskualdeko bihurtzeko" eredu ezartzea

zuzeneko laguntzei dagokienez, baita erabateko erabakimena izatea ere, FEADERren bitartez landa-garapeneko laguntzak aplikatzean hartu beharreko estrategia, helburu eta neurriei dagokienez, betiere gure autonomia-erkidegoaren errealitate sozioekonomikora egokitzeko. Hori guztia eskualdeko esparru malgu eta subsidiario baten barruan dago, Estatuaren administrazio- eta eskumen-egiturari egokituta baina gure sektorearen premia, berezitasun eta aldarrikapenak hurbiletik defendatuta.

Nekazaritzako, basoko eta arrantzako produkzio-sektoreak lehiakortasunean oinarrituta egin behar du aurrera, eta horretarako, sektore horrek nekazaritzako elikagaien katean produzitzeko eta negoziatzeko duen ahalmena bultzatuko duten neurriak txertatuko ditu Eusko Jaurlaritzak, merkaturatzeko estrategia berri bihurtzearen arazoari heltzeaz gain.

Euskadin, nekazaritza ekologikoak badu hazteko aukerarik eta Eusko Jaurlaritzaren lehentasunetako bat nekazaritza ekologikoaren produkzio-eredua sustatzea da; horretarako, ingurumen-iraunkortasuna hobetzen aurrera egin behar dugu.

Arrantzaren sektoreari dagokionez, lehiakortasun handiagoa izatea ahalbidetuko dioten erakunde sendo eta egituratuak eratzea izango da abiapuntu, erauzte-prozesuetan nahiz merkaturatzeko prozesuetan. Arrantza-azpiegituren hobekuntzan ere izan behar du eragina Jaurlaritzak, eta baita akuikulturan ere, I+G+Bn ahaleginak areagotuz, lehengai fresko eta eraldagarriaz hornitzeko ahalmena izango duen sektore sendoa sortzea lortzeko, eta betiere erauzteko arrantzaren eskaintza haztea eraginez.

Nekazaritza-sektorearekin loturiko jarduera ekonomiko bati ekin nahi dioten gazteek zailtasunak izaten dituzte lurra lortzeko, edo inbertsio handiak egin behar direlako; horrela, bada, zailtasun horiek leuntzearen, txandakatze irekiari eta bitartekotza zerbitzuari esker, 40 urtetik beherakoak nekazaritza-sektorean eta landa-ingurunean

finkatu ahal izango dira. Izan ere, gazteei lehentasuna emango zaie laguntza-planetan, baita nekazaritzako lurzorua, ekoizpen-bitartekoak, prestakuntza-planak eta ustiapenen titulartasuna lortzeko prozesuetan ere.

Ikerketa, berrikuntza eta lankidetzak; horiek dira Euskadiko nekazaritzako elikagaien sektorearen etorkizunerako gakoak. Beraz, ikerketako eta berrikuntzako aukera berriak bilatzea eta ustiatzea oso garrantzitsua da, bioekonomiaren erronkei (ekonomiaren, ingurumenaren eta gizartearen arloekin loturiko erronkei) aurre egiteko. Hona hemen erronka horiek: elikagai seguru eta kalitatezkoen eskari gero eta handiagoa, produkzio iraunkorra, animalien ongizatea, baliabide berriztagarriak erabiltzea, energia aurrezteak eta ingurumena errespetatzea. Lankidetzaren eremuan, Eusko Jaurlaritzak berrikuntzaren aldeko eskualdeko sare espezifikoetan eta mugaz gaindiko ekimenetan presentzia izatea indartzen ari gara.

Jaurlaritzak Euskadiko tokiko artisau-produktuaren inguruan hartutako konpromisoarekin jarraituko du; konpromiso horren arabera, produktuaren lehengaiaren % 100ak ustiategikoa izan behar du, eta produktua ustiategian bertan eraldatu beharko da, nekazariak eta abeltzainak beren ustiategietako produktuen ezaugarriak eta nolakotasunak zabaltzeko, antzeko motako beste produktu batzuekin alderatuta balio erantsia emango duten ezaugarriak eta nolakotasunak, alegia.

### **3.4. Garapenaren iraunkortasun-osagaia**

#### **3.4.1. Lurralde-politika orekatu eta iraunkorra**

Helburu estrategikoetako bat da datozen belaunaldiei lurralde atsegingarriagoa, iraunkorragoa eta garapen-ahalmen handiagokoa oinordetzan uztea. Horretarako, hiri eta herri atseginagoez,

osasungarriagoez eta erakargarriagoez gozatzea, lana eta bizitokia hurbiltzea, hobeki zainduta egonik guztiontzat irisgarriagoa den ingurumen-ingurua edukitzea, gure enplegu- eta etxebizitza-aukerak hobetzea eta azpiegitura eraginkorrakoak eta integratuagoak izatea ahalbidetuko duen lurralde-plangintza garatzean egingo da lan.

Lurralde-garapen orekatua eta iraunkorra faboratuko duten arau-neurriak eta lurralde-antolamenduko neurriak sustatzea da jomuga, hiri-berrikuntzako politikak zabalduz, gune degradatuak berreskuratuz, ingurunean integratutako jarduera ekonomikoak txertatuz eta lurraldearen artifizializazioa mugatuz.

Ezinbestean egin behar da lan adostasunez eta koordinazioz hainbat erakunde elkartzen dituzten zeharkako proiektuetan, esate baterako, guneak berroneratzeko proiektuetan. Era berean, hainbat tresnaren bitartez leheneratzeko eta babesteko tratamendu espezifikoak behar duen aktiboa da paisaia.

### **3.4.2. Energia-politika hazkundearen, lehiakortasunaren eta iraunkortasunaren palanka gisa**

Euskadiko energia-estrategiaren helburua honako hau da: kontsumo energetiko altua eta baliabide natural oso gutxi dituen euskal gizarteak energia nahiko izatea, kantitate, kalitate eta denborari dagokienez eta, lehiakorra den kostuarekin eta ingurumenerako iraunkorra den eran. Era berean, energia- eta ingurumen-erronka handiak aprobetxatu nahi ditu Euskadiko ekonomiaren hazkunde-aukera on gisa, garapen teknologikoaren, enpresen arteko lankidetzaren eta negozio-ildo berrien identifikazioaren bitartez.

Euskadik enpresen eta ahalmenen (ingeniaritzakoak, teknologikoak eta zientifikoak) kontzentrazio handia du energiaren eremuan, eta horren ondorioz, esparru hau nazioarteko protagonismorako bokazioa duen jardueraren eta jakintzaren gune da. Kluster ikuspegi horrek

eragiten du Euskadirako R1S3 estrategian identifikatzen diren energia espezializazioko lehentasuneko hiru eremu handietako bat izatea.

Horrenbestez, energia-politikek energia-eraginkortasunarekin eta -aurreztearekin eta energia garbiak eta berriztagarriak produzitzeko instalazioekin lotutako inbertsioak sustatuko dituzte, gas naturalaren aldeko apustu irmoarekin jarraituz; gas naturalari dagokionez, biltegitratzeko azpiegiturak garatzeaz gain, ezinbestekoa izango da sare kapilarra hedatzea, hornikuntza dibertsifikatua eta lehiakorra ziurtatzeko. Helburu horrekin berarekin sustatuko da gas naturaleko hub iberikoa abian jartzea.

Horrez gain, aurrekontuaren barruan, garapen teknologikoko eta industrialeko ekimenak bultzatuko dira, hots, energiaren arlo estrategikoetan Euskadi munduko erreferentzia gisa kokatuko duten ekimenak. Arlo estrategiko horiek honako hauek dira: sare adimendunak, ibilgailu elektrikoa, itsas energia —olatuek eragindakoa eta offshore energia eoliko flotatzailea—, eguzki-energia termoelektrikoa edo biltegitratze elektrikoa eta termikoa.

Era berean, Euskadiko industria-sektorean izaten ari den inpaktu negatiboa arintzera bideratutako neurriak zabaltzen jarraituko du erregulazio elektriko berriak.

### **3.4.3. Ingurumen-politika arduratsua, ingurumen-aldagaiari balioa ematen diona lehiakortasunaren alderdi gisa**

Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-politikaren oinarritzko orientazioa da pertsona guztiek, gaur egungoek eta etorkizunekoek, bizimodu duina izateko eskubidea izatea, kalitatezko ingurune batean.

Gobernu Programan aitortzen denez, ingurumenaren kontzeptuak giza bizitza baldintzatzen duten alderdi guztiak biltzen ditu, ez soilik alderdi naturalak, baita alderdi sozialak, ekonomikoak eta kulturalak

ere. Gaur egun ingurumenaz hitz egitea gure bizitzeko tokiaz, gure jarduerak garatzen ditugun testuinguruaz, gure ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuez eta herrialde gisa azken urte hauetan lortu dugun ingurumen-ezagutzari balioa emateaz hitz egitea da.

Ingurumen-politikak, zeharkakoa denez, erantzunkidetasunean oinarrituta egon behar du. Hori lortzeko, administrazio guztien esku-hartze koordinatua behar da, baita agente sozialen, ekonomikoen, zientifiko-teknologikoen eta, bereziki herritarren partaidetza ere; zeharkakotasun hori ezagutzera ematen da, halaber, esku-hartze publikoko beste eremu batzuekiko loturan, eta, oso bereziki energia-eta garraio-politikekiko eta osasun publikoko politikekiko loturan, ezinbestekoa izanik arlo horietatik ekingo diren ahaleginen osagarritasuna bermatzea.

Bestalde, ingurumen-aldagaia ezin da ezein ekimenen galga izan. Aitzitik, paradigma sozioekonomiko berriak ikusita, ingurumen-aldagaia ekintzailtzaren eta ekonomia produktiboaren alde dagoen beste elementu bat dela pentsatu behar dugu.

Alderdi horiek guztiak egituratuta eta aztertuta geratuko dira 2015-2018/20 aldirako IV. Ingurumen Esparru Programan. Aurreikusten da urtearen amaieran aurkeztuko dela programa hori. Programa horretan antolatutako ekimen eta ekintzen helburu estrategikoak honako hauek izango dira: ingurumen-aldagaia Jaurlaritzaren politika guztietan sartzea; ingurumen-administrazioaren arrazionalizazioari, koordinazioari, sinplifikatzeari eta haren eraginkortasunari dagokionez aurrera egitea eta Euskadiko ingurumen-kalitatearen maila altua hobetzea, alderdi interesdun guztien erantzukizuna areagotzearen alde lan eginez; baliabideen erabilera eraginkorra sustatzea; gure ekosistemak eskaintzen dituen ezagutzei, ingurumen-azpiegiturei eta zerbitzuei balioa ematea, ingurumen-aldagaia herrialdearen garapen ekonomikoa eta lehiakortasuna lortzen lagunduko duen alderdia izan dadin lortuz; osasun publikoa hobetzen

eta kapital naturala babesten laguntzea; eta ingurumen-alorreko hezkuntza-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-maila handitzea euskal herritarren artean.

Halaber, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko 2030erako euskal estrategia berria zehazten bukatzen ari gara. Estrategia horrek ikuspegi integratua eskainiko du arintzeko eta egokitzeko gaien inguruan, baita jarduera ekonomikoa sortzeko ahalmena aprobetxatzeko aukeren inguruan ere, karbono gutxiko ekonomiaranzko ibilbide-orri bat izanik.

#### **3.4.4. Garraio iraunkorrerako politika**

Garraio-politikak lurraldearen garapen orekatua eta iraunkorra lortzen lagundu behar du; horretarako, garraioaren hainbat azpiegituretan oinarritu behar du; izan ere, azpiegitura horiek oinarritzkoak dira hazkunde ekonomikoa lortzeko ez ezik, lehiakortasuna eta enplegua hobetzea lortzeko ere.

Horregatik, lan egingo da pertsonen mugikortasun fisikoko premiak hobetzeko; horretarako, garraio-azpiegitura horien garapen eraginkorraren eta efizientearen kudeaketa eta garapena bultzatuko dira, Europako arku atlantikoa deitzen zaion horretan duten kokapen estrategikoarengatik. Aipatutako garraio-azpiegitura horiek honako hauek dira, esaterako: portuak, aireportuak, trenbideak eta autopistak.

#### **3.5. Balioa sortzeaz gain gobernantza berriaren printzipioen bitartez bideratuta dagoen Administrazioa**

Europako Gobernantzari buruzko Liburu Zuriaren arabera, gobernantza ona honako bost metatze-printzipio hauetan oinarrituta dago: irekitasuna (hots, gardentasuna eta erabakien jakinarazpena), parte-hartzea; erantzukizuna (edo beste modu batean esanda,

eraginpean hartutako agente bakoitzak bere gain hartzea eman zaion eraginkizunaren erantzukizuna); eraginkortasuna eta koherentzia.

Doako Justiziaren Dekretuaren Erreformen egingo da lan, kolektibo ahulenek doako laguntza juridikorako eskubidea izango dutela ziurtatzeko eta bitartekotzaren aldeko apustua egiteko, gatazka sozialen etengabeko judizializazioaren eredu alternatibo gisa. Halaber, "IV. Gazte Justizia Plana" egingo da, gazte arau-hausleak gizartera daitezen eta biktimei eragin dizkieten kalteekin kontzientzia daitezen lortzeko.

Eusko Jaurlaritzak enpresa-sektore publikoari dimentsio berri bat emateko eta berriz egituratzeko estrategia bat jarri du abian eta Euskadiko Berrikuntza Publikorako Estrategia garatuko du, herritarrei arreta eta zerbitzua emateko eta administrazio publiko guztien arteko elkarreragina lortzeko helburua izango duena. Hori lortzeko, izapidetze-fasean dago Euskal Administrazio Publikoari buruzko Lege Proiektua.

### **3.6. Segurtasun publikoa gainerako eskubide eta askatasun publikoak baliatzeko ezinbesteko baldintza gisa**

Segurtasun publikoa gizarte-ongizatearen Europako ereduaren oinarritzko zutabea da. Segurtasun publikoa ezinbesteko baldintza da gainerako eskubide eta askatasun publikoak baliatzeko. Euskadiko herritarrek eskatzen duten segurtasun pertsonala eta soziala bermatzeko, ezinbestekoa da segurtasun-politikak —giza baliabideen eta baliabide teknikoan antolamendu eraginkorra eta efizientea dutenak— antolatzea.

Eusko Jaurlaritzak Segurtasun Publiko integraleko eredu berria, herritarren zerbitzura bideratuta dagoena, ezarriko du Euskadin, 2014-2019 aldiko Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorrean ezarritakoaren arabera. Plan hori ikuspegi integral batetik abiatuta



egin da, zeharkako segurtasun-politika egokituak, koordinatuak eta lehenetsiak antolatuz.

2014an Euskadiko Segurtasun Publikoko Kontseilua eratu da honako helburu hau izanik: ideiak eta esperientziak trukatzea segurtasun publikoko politikak eraginpean hartzen dituen eta inplikaturik dauden entitateen eta erakundeen jardunetan koherentzia ahalbidetzea.

Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen segurtasun-politika publikoak ikuspegi integrala du eta honako hauek biltzen ditu: (1) delituaren prebentzioa eta poliziaren erreakzioa delitua gertatu ostean, (2) Larrialdiei Aurre egiteko Euskal Sistemaren koordinazioa eta eguraldi txarren iragarpena, (3) prebentzio-politikak trafikoaren gorabeheren aurrean eta (4) jokoaren eta jendaurreko ikuskizunak egiten diren lokalen erregulazioa.

Delituaren prebentzioari eta poliziaren erreakzioari dagokionez, Ertzaintzaren Plan Estrategikoa-2016 Ortzimuga izeneko Planak hiru lehentasun ditu: herritarren babes handiagoa, poliziaren lanaren kudeaketa berria eta ikerketarako sustapen irmoa.

Ertzaintza Kalean izeneko programaren helburua herritarrengandik hurbilago dagoen hurbiltasuneko Ertzaintza lortzea da. Egitura hierarkikoa lautu dugunez eta agintari kopurua murriztu dugunez, administrazio-egiturak arindu ahal izango dira eta polizia-etxeetan ez ezik, kalean ere baliabide gehiago izateko aukera egongo da. Eta proposatutako egitura berrietan indartu egin da poliziaren informazioarekin, ezagutzarekin eta adimenarekin zerikusia duen oro, baita Ikerketa kriminalaren ildo ere, hori ere indartu egingo baita giza baliabideei, espezializazio-irizpideei eta baliabide materialei dagokienez.

Larrialdiei erantzuteari eta eguraldi txarra iragartzeari dagokionez, helburua zera da, herritarrak babestea herritarren segurtasuna, ondasunak edo ingurumena mehatxatzen duten arriskuen aurrean.

Arriskuen eta mehatxuen aurrean eman behar den erantzunak prebentziokoa ez ezik erreaktiboa ere izan behar du larrialdi-egoeraren aurrean.

Honako hauek dira funtsezko tresnak: larrialdietarako telefonozenbaki bakarra (1-1-2) eta larrialdia SOS DEIAK Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren bitartez kudeatzea, gizarte-sareen erabilera adimentsua herritarrei informazioa emateko bide gisa, babes zibilaren eta larrialdien kudeaketaren alorrean esku hartzen duten gainerako agenteekiko koordinazioa, eta prebentzio-plangintza, autobabeserako araudia, eta, orokorrean, gure prebentzioaren kalitatea hobetzea gerta litezkeen hondamen-ezbeharrei aurre egiteko.

Trafikoaren alorrari dagokionez, bide-segurtasunarekin lotutako Eusko Jaurlaritzaren politika publikoak honela banakatuta daude: bide-hezkuntza, trafikoaren kontrola, istripuen prebentzioa eta zehapen-politika.

Ezinbestekoa da beheranzko joera bermatzea istripu kopuruari dagokionez nahiz istripuen larritasunari dagokionez. Horretarako, ezinbestekoa da bide- komunikazioko eta- hezkuntzako kanpainetan egindako ahaleginari eta inbertsio publikoari eustea. Azpiegiturak monitorizatzeak hobekuntzak ekarriko ditu trafikoaren kudeaketan eta, era berean, istripuak gutxiagotzen lagunduko du.

Trafiko-arloko arau-hausteak izapidetzeko zentro automatizatu funtsezko tresna da trafiko-arloko arau-hausteen ondoriozko zehazpenak azkar, modu eraginkorrean eta espezializatuan izapidetzeko.

Arkauteko Akademia funtsezko zeharkako zerbitzua da segurtasunaren alorreko gure politika publikoaren ildo estrategikoak ezartzeko. Informazio egokirik gabe ezin da segurtasun publiko efizienterik izan. Profesionalek (ertzainak, suhiltzaileak, udaltzainak,

osasun-alorreko langileak, eta abar) eta babes zibileko boluntarioek oinarrizko prestakuntza izan behar dute eta beti eguneratuta egon behar dute.

Ezagutzaren kudeaketa, premiak atzematea, prestakuntza-produktuak diseinatzea, irakaskuntza eta etengabeko prestakuntza dira Arkauteko Akademiaren erantzukizun garrantzitsu eta ugariak. Eta Akademiaren eginkizunen artean Ertzaintzaren agente berriak hautatzeko eta prestatzeko premiak estaltzea dago.

Azkenik, jokoaren politika publikoak baliabide telematikoen bitartez hedatzen ari den sektore ekonomikoaren erregulazioa joko arduratsuaren sustapenarekin elkartu behar du. Jendaurreko ikuskizunetan ezinbestekoa da bermatzea aisia-jarduerak segurtasun-neurri guztiak betez garatzen direla.

#### **4. FISKALITATEA POLITIKA EKONOMIKORAKO ERREMINTA GISA**

Zerga-politika ongizate-estatuaren elementu nagusietako bat da; izan ere, zerga-politikaren baitan dago gizarteak behar adina baliabide izatea zerbitzu eta prestazio publikoei eusteko, hots, pertsonen berdintasuna eta elkartasuna bermatzeko.

Behar bezala diseinatutako fiskalitateak laguntzen du pertsonen arteko ahaleginen ekitatea lortzen, bai ekitate horizontalari dagokionez, bai ekitate bertikalari dagokionez. Eta, honenbestez, aberastasuna herritarren artean eraginkortasunez banatzeko balio du, aurrerabidearen eta gizarte-justiziaren alde egiteko. Horrez gainera, lehen mailako politika ekonomikoko erremintatzat hartu behar dugu fiskalitatea; izan ere, jarduera ekonomikoa, enplegua eta aurrerabide kolektiboa sustatzen ditu.

Printzipio horiei dagokienez, 2014an zerga-erreforma bat jarri da abian Euskadin. Euskadiko erakunde eskudunen araudi-ahalmenaren

eraginpeko zergak hartu zituen erreforma horrek eraginpean, funtsean, pertsona fisiko eta juridikoen gaineko zuzeneko zerga. Zerga-presioaren igoera errenta altuenetan biltzen da.

Bigarrenik, Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoaren esparruan, 2014an adostu zen Kontzertu Ekonomikoa egokitzea izaera desberdina duten, eta, halaber, helburu desberdinak dituzten zerga berriak sartzeko: Joko Jardueren gaineko Zerga, Kreditu Erakundeen Gordailuen gaineko Zerga, Energia Elektrikoa Ekoiztearen Balioaren gaineko Zerga, Energia Nukleoelektrikoa Sortzearen ondorioz Erregai Nuklear Gastatua eta Hondakin Erradioaktiboak Ekoiztearen gaineko Zerga, eta Erregai Nuklear Gastatua eta Hondakin Erradioaktiboak Instalazio Zentralizatueta Biltegitzearen gaineko Zerga eta Gas Fluordunen gaineko Zerga. Zerga horien ordainarazpena foru-aldundiei dagokie, lortutako akordioan aurreikusitako lotura-puntuen arabera.

Horrez gain, akordio bat lortu zen Loteria Sarien gaineko Zerga Bereziaren atxikipenak foru-aldundietan sartzeko jasotzailearen bizilekuaren arabera. Zerga berrien ituna 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin adostu zen.

## **5. AURREKONTU IRIZPIDEAK**

Ogasun eta Finantza Sailak aurrekontu-baliabideak esleituko dizkio Sail bakoitzari, aurreko idatzi-zatietan bildutako Politika Publikoetarako lehentasunei eta jardunei jarraiki. Funtsean, Eusko Jaurlaritzak bere helburu bikoitzari eusten dio; alde batetik, pertsonen oinarrizko premiak asebeteko direla bermatzea, eta, bestetik, hazkunderako eta enplegua sortzeko palanka gisa jardutea.

Gastu-politikak, halaber, aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudia betetzera bideratuta egongo dira, bai defizitaren helburua betetzearen ikuspegitik, bai zor publikoaren ikuspegitik.

Horretarako, Administrazio Orokorraren nahiz haren mendeko Erakunde Autonomoen, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoen, Sozietate Publikoen, Fundazioen eta Partzuergoen gastuen kapitulu guztien kuantifikazioa finantza-nahikotasunerako eskakizunak ez ezik, defizitaren eta zorraren alorreko betekizunak ere kontuan hartuta gauzatuko da.

Diru-sarrera korronteak zehazteko, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan ezarritako Foru Aldundien Ekarpenak hartuko dira kontuan, diru-bilketarako aurreikuspenari jarraiki. Gainerako diru-sarrerak Ogasun eta Finantza Sailak kuantifikatuko ditu gainerako Sailen laguntzarekin.

Administrazio orokor eta instituzionaleko eta zuzenbide pribatuaren bitartez zuzenduta dauden erakundeetako funtzionarioen, langile lan-kontratudunen eta behin-behineko langileen aurrekontu-plantillek, irizpide orokor gisa, izaera mugatzailea izango dute, eta 2014ko abenduaren 31n zeuden lanpostuen guztizko erantsia ezin izango da handiagotu.

Autonomia Erkidegoko zerbitzura dauden funtzionarioen, lan-kontratadun langileen eta behin-behineko langileen ordainsariak Euskal Autonomia Erkidegoko 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean zehaztuko dira.

Sailek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoa osatzen duten erakunde guztiek lehentasunezko gastutzat hartuko dituzte lortutako ongizate-estandarrak betetzea ahalbidetuko duen zerbitzuen eskaintza publikoa finkatzera bideratutakoak.

Inbertsio Errealei, Kapitaleko Diru-laguntzei eta Finantza Aktiboen Aldaketari buruzko gastuen banaketak iraganean hartu ziren eta 2015eko ekitaldian jarraipena izango duten betebeharrei aurre egiteko beharrezkoak diren kredituak hartuko ditu. Era berean, ziklo ekonomikoaren aldaketa finkatzea ahalbidetuko duten kredituak

emango dira, enpleguaren sorrera sustatuko duten jardunak ahalbidetuz.

Ez da aurreikusiko erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko, fundazio edo partzuergo berririk sortzea.